

2020KO MAIATZAREN 13AN UDALBATZAK IZANDAKO OHIKOA OSOKO BILKURA**BILDUTAKOAK:**

ALKATEA: Unai Elgoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Urbarri Urresti, Pilar Leanizbarrutia de Bizkarralegorra, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

KONTUHARTZAILEA: Juan Antonio Martinez de Agirre Etxabe

IDAZKARIA:FCO. JAVIER MENDIZABAL GARATE

Aretxabaletan, bi mila eta hogeiko maiatzaren hamahiruan, arratsaldeko 18:30ak direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira telematikoki bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egitearren.

1. Aurreko bilkurako akta onartzea.

Ion Albizuk esan du aktarekin betikoa gertatzen dela. Aktak mortsen idatzitakoak dira. Zaila da jartzea norberak zer esan duen eta hain-hain laburra. Askotan esan dugun bezala, aurrerapausoak egin behar ditugu akten asuntan. Akta grabatuta geratzen denez honek lagunduko digula erantzen du Xabierrek akta txukun bat jaso ahal izateko eta baita ere aprobetxatuta grabaketa ahal bada herritarren eskuetan jartzeko. Momentuz, pleno aretoan ez dugu baliabiderik, baino grabaketa honekin egin leike. Alkateak esan du hori dela asmoa. Grabazioa bukatzen denean web orrira igoko da eta linka jarriko da ikusi ahal izateko. Ez daukagu streaming-a martxan, saiatu gara, baina arazoren bat dago aplikazioarekin.

Jarraian bozketa egiten da eta aho batez 20.03.11ko akta onartu egin da.

2. 2019KOFO0001 espedientea. Ordenantza fiskalen aldaketa.

Alkatea: Aurrekoan komentatu genuen koronabirusaren egoera honek itxierak eta sortutako arazoekin komertzio eta profesional txikiei laguntza emateko asmoz zaborren 2-3 hiru hilabete kenduko genuela eta ura ere bai. Kontua da arazoak ikusi ditugula legalki hori egiteko eta orduan egiten den proposamenak zaborretan efektu berea dauka, ez da igual-iguala. Zaborretan banatzen diren komertzio desberdinak taldeka dauzkagu. Bost kategoria dauzkagu, bakoitzak talde desberdinarekin. Proposatzen dugu talde hauetan itxita egon direnak bakoitza bere kondizioekin edo epigrafiakin jartzea 6. eta 7. kategoria batzuetan. 6.ena izango litzake komertzioa 2020 eta 7. hostalaritza eta 2020 eta hemen kategoria bakoitzari, ordenantza horrela numeratuta daude langile kopuruen arabera, heren batera jaistea ekibalente fiskala. Honekin lortzen duguna da hiru hilabetetan hilabete bakarra ordaintzea. Uraren kasuan, komertzio txikiak oso-oso ur gutxi erabiltzen dute, m³. 2 m³, 3 m³, rango horretan. Zer gertatzen da? minimo bat kobratu zaie, 30 m³. Nahiz eta ez urik erabili 40 € inguruko tasa batera obligatzen ditugu. Bestalde, hostalaritzan, normalean ur gehiago erabiltzen dute, hemen bai batzutan nahiko dezenteak dira kontsumoak eta prezioak ere etxe batean baino askoz garestiagoak dira. Proposamena da bietan minimoa kentzea, m³ bat jartzea aurtan, laguntza hori gehienek kontsumituko lukete. Ikusten duzuen inportea oso txikia da eta 30 m³tik gora errekaragoa jartzen da baina prezio honek etxebizitza normal baten prezioetan jartzea, bai komertzioan eta bai hostalaritzan ere. Hostalaritzan errekaragoa izango litzateke 60 m³tik gorakoa. Berez hostalaritzan, badaz komertzio batzuk ur asko kontsumitzen dutenak 200 – 300 m³ hiru hilabeteko. Helburua ura zerbait merkatzea da, baina zaindu egin behar da kontsumoa disparatu ez dadila eta horrexegatik proposatzen dugu bi tasa. Azkena eta 3. aldaketa izango litzake gaur egun ordenantzetan terrazatik kobratzen dena bertan behera uztea. Gero ikusiko dugu urtea nola dihoan eta hurrengo urteko ordenantzaz, urriaren inguruan, buelta bat emango zaie hurrengo urterako hortan utzi, aldatu..., baino aurtengorako bertan behera uzten da, baina horrek ez du esan nahi baimenik ez dela

eman behar. Ez da kobratuko baina baimendutako terrazak jarri beharko dira. Horiek dira lehenengo puntuan proposatzen diren aldaketak.

Ion Albizu: Tasen asuntura sartu aurretik esan abiada baten gabiltzala. Ohartu behar gara zer-nolako larritasunean bizitzen garen, bai osasun aldetik eta bai ekonomiaren aldetik. Horrexegatik hartzen ditugu horrelako ezohiko erabakiak.

Erabaki hau da bat, baina erabaki asko hartu dira bi hilabete hauetan eta hartuko direnak hurrengo hilabetetan. Batzuk onak izango dira, herritarrak pozik hartuko dituztenak eta igual beste batzuk hain popularrak ez direnak izango. Esan nahi dut hilabete honetan herritarrak jakin izan ez dituzten erabaki asko hartu izan direla, batzuk denen artean kontsentsuz; beste batzuk udal gobernuak erabakita. Batzuekin gu ados egon gara eta beste batzuekin ez gara ados. Denak gaude egoera honi aurre egiteko bidean. Tasei dagokienez, udal hau udal gehienek linea berberetik doa, batzuk egiten dute modu batean eta beste batzuk bestean baino oso antzeko erabakiak hartzen gabiltza. Hasieran udal denak hasi ziren tasak ez zirela kobratu behar esaten, baino gero Unai azaldu duen moduan legeak ez digu marjenik uzten nahi duguna egiteko eta horrek sortu du herritarren edo eragileengan haserre, baiño ulertu behar da egiten duguna egin behar dela segurtasun juridiko guztiarekin eta alde horretatik, gu ados gaude planteatzen den tasen aldaketarekin. Nik uste dut bereziki jarduera batzuetan, zaborrez ari naiz berbetan, profesional batzuk eta tasa batzuk txarto zeudela. Abokatu batek, esate baterako, 400 eta piko € pagatzen du eta etxe baten baino askoz zabor gutxiago sortuta. Orain dela bi urte planteatu genuen rebisioa egitea mankomunitatean eta hori hor geratu zen. Aurtengo mankomunitateko aurrekontuetan bada partida bat horiei heltzeko eta nik uste dut hori inportantea dela ez bakarrik aurtengo tasen erabakiarekin baizik eta urteetan ere profesional horiei laguntzeko tasa horiek ahalik eta justuagoak izatea. Guk planteatu genuen bezala batzordean, planteatuko dugu mankomunitateak ere aurtengo planteatuta duen moduan tasa horiek rebisatzea. Uste dut hori ere badela elementu bat etorkizunean lagunduko diena profesional askori.

Alkatea: Mankomunitatea dela eta arrazoia duela esan du eta neurri batzuk hartzerakoan ez direla denek gustokoak izango. Justiziari begira etxebizitzetako seguruenez igo egin behar zaie eta beste batzuei jaitsi justuago delako benetan sorkuntzakin zerikuzi zuzena daukatelako. Ez dakit aukerarik izan dan ikusteko Juan Antoniok bidali digun Foru Aldundiko txostena, dirubilletakoa; urtariletik apirilera bitartean %24 jausi da. Kontuan edukita lehenengo bi hilabete eta erdiak oso onak izan zirela, ba panorama bat egin leike urtea nondik joango den eta honek eragingo digu erabaki-denon gustukoak ez hartzea. Hobeto ibiltzen gara dirua dezente edukitzea, gauza asko egiteko aukera ematen diguna, baina aurreikuspenak nahiko desastreak dira. Joango gara poliki-poliki ajustatzen. Urte xelebrea izango da, egokitu beharrekoa, hori tokatu zaigu eta horri aurre egin beharko diogu.

Ion Albizu: Ez dut nahi eztabaida horretan sartu, luze joko luke, baina adibidez gu geu udal moduan batez ere bi iturri ditugu sarrera moduan. Alde batetik Foru Funtsa, eta gure aurrekontuaren erdia da, eta bestetik gure tasak eta zergak. Hor ez daukagu marjen haundirik diru gehiago biltzeko eta agian helburua ere ez da hori, eta bestea gure esku ez dago eta uste dut Gipuzkoa mailan adostasuneko erabakiak hartzeko gune bat beharko dela. Gune bat badago, Foru Aldundiak horretarako daudelako, bain bai udalak eta bai Foru Aldundien arteko adostasunak denondako aurtengo eta datorren urteetan ahalik eta eramangarriak izateko, bereziki herritarrek ahalik eta kalte gutxien jaso ahal izateko.

Alkatea: Bakarrik komentatu zifra zein den, oraintxe bidali digutelako, hori objetiboa da. Gero, zuk komentatzen duzuna, zelan banatu biltzen dena, baina rekaudazioa zelan dihoan diskusiotik kanpo dago. Bestea ulertzen dut zer esan nahi duzun, baina ikusiko dugu zelan. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez onartzen da.

LEHENA: 2020ko Ordenantza fiskalen aldaketa onartu.

BIGARRENA: Hogeita hamar eguneko jendaurreko epea zabaldu erreklamazioak aurkezteko. Alegaziorik aurkezten ez bada, ordenantza fiskalen aldaketa behin betikoz onartu dela ulertuko da.

3. 2020KKRT0002 espedientea. Gerakinetik inkorporazioa kreditu globalera

Alkatea: Aurrentua oraindik ez dugu doitu eta datu denek jasotzen direnean doikuntzarekin hasiko gara baina bitartean 300.000 € iazko gerakinetik kreditu globalera pasatuko dira suertatu daitezkeen kreditu gehikuntzak egiteko, adibidez, bonuen kanpañak. Beste partida batetik hartu genezakeen eta horra sartu, baina beranduago egin beharko dugu kreditu inkorporazioak aurrekontua arreglatzeko eta orain 300.000 € sartuko dugu, ez daukagu beste gasturik egiteko asmorik baina kanpaina honi eta beste behar batzuei aurrerikoko lehenengo kreditu globala xahututa zegoen ia eta beharra ikusten dugu 300.000 € horiek edukitzeko marjen minimo bat edukitzeko jokatzeko eta horixe da, ez dauka beste helbururik.

Ion Albizu: Lehengo linean, hartu diren neurriak baino gehiago hartu beharko dira hurrengo hilabete eta urteetan ze Unai esan duen moduan dirubilketa espero zena baino txarragoa izan da eta denok gure inguruan entzuten duguna eta enpresetan ere ez da positiboa eta horrek eskatuko digu epe motzean eta ertainean eta luzean beste neurri batzuk hartu behar izatea eta horretarako baliabideak martxan jarri behar izatea, enpresak laguntzea lagundu dugun moduan bonuen bitartez komertzioa, ostalaritza etab, eta enpleguari eusteko seguruenez neurriak martxan jarri beharko ditugu etorkizunean, eta horretarako uste dut aurrekontuan gastuan zurrak izan behar garela, baina aldi berean zelabait ekonomia mobilizatzea inportantea da. Gure aurrekontua nahiz eta txikia izan, hamar milioi, eta gure eragina gure inguruko ekonomian mugatua, gure erabakiak badute eragina sektore batzuetan. Orduan, gure erabakiekin kontuz ibili behar gara. Zurrak gastuetan bai, baina gero zehaztu behar ditugu zeintzuk diren lehentasunak jakiteko non gastatzen dugun eta non ezin dugun gastatu.

Hori nik uste dut inportantea dela. Guk bere garaian esan genuen zaintza eta aldaketa klimatikoak zirela gure lehentasunak. Hori uste dut inportantea dela etorri daitezkeen krisiei aurre egiteko baliabideak eta azpiegiturak edukitzeko eta ikusten dugu ezinbestean eta pasa den batzordean komentatu genuena, aurtengo aurrekontua egokitzeko momentua ailegatuko dela, seguraski maiatzaren 25tik aurrera Foru Funtzako kobroa jasotzen dugunean eta zehazki dakigunean zenbat jasoko dugun, inportantea da aurrekontua egokitzea eta jakitea zerrekin jolastuko dugun hurrengo hilabetetan eta horregatik plangintza hau urte honetako plangintza dela aurrekontua eta hurrengo urteetarako nik uste dut inportantea dela argi edukitzea, bai guk eta bai herritarrek.

Alkatea: Zalantzarik gabe. Honek marjina emango digu beste aldaketa handirik gabe gauza batzuk egiteko beste partida batzuk hobetzeko, baina beste aukera hori da. Uste dut hobe dela doitzea aurretik, beste aukera bat da partidak eduki arren ez joan gastatzen eta azkenean hurrengo urtean likidatzen dugunean geratzen dena geratzen da, baina asmoa hobeto da aurretik garbi edukitzeko zeintzuk diren prioridadeak eta non zentratuko garen, aurretik doiketa horiek egitea eta gero egoera aldatzen den heinean aldatzen joango gara. Aurten sekula baino atentuago egon beharko dugu hiletik hilerara begiratzen zelan doan gauza. Nik bai daukat garbi, lehen ere komentatu nuen, ez dela aurtengo aurrekontua, aurtengoa, hurrengoa, eta hurrengo urte bukaeran kiroldegia ordaintzen bukatzen da, eta agian marjen gehixegoko edukiko dugu, gainera aurtengoa eta hurrengoa garbi daukat antzerakoa joango direla.

Ion Albizu: Unai esan duen azkena dela eta, inportantea da, eta gure eskuetatik kanpo geratzen da, beste erakundeek hartzen dituzten erabakiak afektatuko digute, ez da bakarrik Foru Funtza, ja diru-laguntza asko bertan behera geratzen ari dira eta horrek ere afektatzen gaitu hainbat programa eta inbertsioetan. Besteen prioridadeak guri ere afektatuko digute.

Alkatea: Bai, ez dut zalantzarik. Denei esan diet diru-laguntzekin kontaktatu duzun programetan kontuz ibiltzeko. Bai guri eta bai herritarrek beste batzuei eskatzerakoan. Adibidez, iaz emandako diru-laguntzen zuriak eskatzerakoan argi dirurik ez badago askoz zorrotzago jokatuko dela eta zati batzuk bidean geratuko direla. Aurten ere, batez ere eskatzen dutenak zuk gastua aurretik egitea argi eduki gastu hori egin behar duzula diru-laguntzarik ez balego ere; bertan behera geratu daitezke eta horrekin ez kontaktu; baina afektatuko gaituela seguru. Foru Aldunditik, zuk esan duzun bezala badakit deialdi batzuk atzera botatzen ari direla eta Eusko Jaurlaritzatik pentsatzen dut laster antzera ibiliko direla edo txarragoa izan daitekeena, bertan behera mantendu eta gero ematen ez badizute azkenean okerrago da. Horregatik, argi ibili behar da hor.

Ion Albizu: Gaur, adibidez, informazioa jaso dut Europatik jasotako diru-laguntza batzuk emanda zeudenak atzera bida direla. Esan nahi dut, alde horretan inportantea da ere exijitzea beste erakundeei arduraz jokatzea ze, proiektu batzuk martxan jarrita kontaktatu diru-laguntza batzuekin eta gero kentzen

badira, udalaren egoera kolokan jarri leike proiektuaren tamainaren arabera momentu batean edo bestean, eta lehen esan dudana, inportantea da besten lehentasunak zeintzuk diren, lehentasunak non jarri, ze bestetik kenduko digute guri ere.

Jarraian bozketa egiten da eta aho batez onartu da gerakinetik kreditu globalera honako inkorporazioa egitea:

300.000,00 euroko kreditua handitzea 1.0701.500.929.00.99-2020 (1311) Kreditu Globala partidan, 2019ko likidaziotik datorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura.

4. 2020IONE0001 espedientea. 2019ko udal inbentarioa.

Juan Antonio Martinez de Aguirre: Joan zen urteko inbertsioen laburpena azaltzen da, zer inbertitu zen, eta zer bajak eman ziren. Diferentzia hor daukazue: 758.000 € pasatxo. Lehenengo orrian diferentzia azaltzen den lekuan. Hurrengo orrietan daukazue gauza bakoitza bere balioarekin: higiezinak, altzariak,.... Hau da laburpen handi bat. Bajen kasuan, lizentziak, informatikako lizentziak urtebeterako izaten dira eta urtea amaitzean baja ematen zaie. Bestalde, Jakionen partizipazioa saldu egin zen. Gure balorea hor agertzen dena zen, 6.400 € pasatxo, baina diru gutxitan saldu zen. Hor dugu, baita ere, Bedarreta 13 eta,14. salmenta. Hori gure balorean ehun eta berrogeita bi euro eta piko da. Balore handiagoan saldu zen. Diferentzia horiek irabazietara doaz eta baja ematen zaio guk dugun balorean. Por zierto, Ogasun batzordekoei bidali nien link bat kontu orokorarekin, ez dakit zabaldu duzuen edo ez eta zinegotziek baietz erantzun diote.

Ondoren, bozketa egiten da eta aho batez erabaki da 2019ko abenduaren 31ko Udal ondasunen inbentarioa onartzea, bere laburpena honakoa izanik:

MODIFICACIONES DEL INVENTARIO PRODUCIDAS DURANTE EL AÑO 2019

ALTAS		
Nº	DESCRIPCIÓN	VALOR
EPIGRAFE 1 - INMOVILIZADO -		708.627,12 €
<u>AYUNTAMIENTO</u>		
105181	HP FOUNDATION CARE 24*7 SERVICE	261,36 €
105182	ANNUAL BASIC MAINTENANCE RENEWAL-VEEAM BACKUP	222,64 €
105183	SOFTWARE TEAMVIEWER 14 BUSSINESS	1.392,61 €
105184	68 LICENCIAS ANTIVIRUS	780,73 €
105185	OFFICE 365 PTOPLUP LIZENTZIAK	5.440,83 €
105186	ALKATEARENAKO MICROSOFT LIZENTZIA	54,99 €
105187	RENOVACIÓN PRESTO - 2020 URTEA	232,32 €
105188	CERTIF. IZENPE - INMA MIGUEL	56,76 €
105189	3 LICENCIAS IZENPE: AMAIA M., ALKATEA, MAJE	170,28 €
100005190	PRUEBA CARGA ESTÁTICA - CANCHA ARLUTZ -	4.956,16 €
100005192	FUENTE EN IZURIETA	2.910,00 €
100005121	PARCELA B - REPARCELACIÓN SECTOR 20B - AZBE	0,00 €
100005191	CONSTRUCCIÓN RAMPA HERRIKO PLAZA	83.508,35 €
100005193	RENOVACIÓN ALUMBRADO PÚBLICO (LED)	35.399,21 €
100005116	**Mej. MOD.PROYECTO CONST.BIDEGORRI	1.452,00 €
100005116	**Mej. MODIF.PROYECTO BIDEGORRI ÁMBITO A	1.815,00 €

	<u>ARKUPE</u>	
205180	SISTEMA DE GESTIÓN ORDENADORES - BIBLIOTECA	1.157,01 €
	<u>ERREKABARREN 12 - CONVENTO MONJAS</u>	
1700000/1	MOJEN KONBENTUA	167.838,11 €
17000000	**Mej. PROYECTO ACONDICIONAMIENTO IGLESIA	5.082,00 €
17300000	CAMPO DE FÚTBOL 7	367.617,83 €
17200000	TORREBASOKO KOMUNAK	28.278,93 €
<i>EPIGRAFE 7º - MOBILIARIO</i>		59.138,52 €
	<u>AYUNTAMIENTO</u>	
105122	ORDENADOR - INTERVENCIÓN - Bego	868,88 €
105137	ORDENADOR - URBANISMO	1.449,86 €
105138	ADAPTADORES ORDENADOR JON ALBIZU - MDP/HDMI	72,10 €
105139	SOPORTE PARA TABLETA - JON ALBIZU	196,26 €
105140	RATÓN ERGONÓMICO - JON ALBIZU	19,39 €
105125	TABLETA GRAFICA - RECAUDACIÓN	238,97 €
105126	TABLETA GRÁFICA - RECEPCIÓN -	238,98 €
105123	TABLET - ALCALDE	1.957,48 €
105149	SILLAS RECEPCIÓN AYUNTAMIENTO	1.009,99 €
105155	MESA Y CAJONERA - HARRERA AYTO -	367,24 €
105156	ARETXABALETA MUGI - ROLL-UP	786,50 €
105179	BARANDILLA PARA TABLADO O PODIO	4.081,33 €
	<u>ARKUPE</u>	
205130	ORDENADOR PORTATIL - CULTURA -	966,42 €
205124	SWITCH HPE PROCURVE - CONCEJAL CULTURA	443,04 €
205127	CABLE MINI DISPLAY - BIBLIOTECA MUNICIPAL -	9,56 €
205128	MONITOR ELITE - BIBLIOTECA -	202,32 €
205165	VIDEOGRABADOR HIKVISION - ARKUPE	682,14 €
205166	CÁMARA HIKVISION - ARKUPE -	307,80 €
205167	CÁMARA HIKVISION - ARKUPE -	307,80 €
205168	CÁMARA HIKVISION - ARKUPE -	307,80 €
205169	CÁMARA HIKVISION - ARKUPE -	307,80 €
205148	MESA Y CAJONERA - CONCEJAL DE CULTURA	549,22 €
205150	MESAS Y SILLAS - GAZTELEKU	859,58 €
205152	SOFA NARANJA - GAZTELEKU	605,61 €
205153	SOFA ACERO - GAZTELEKU	605,61 €
205151	TABLEROS DE CORCHO - GAZTELEKU	149,17 €
205154	ACOLCHADOS SOFÁ - GAZTELEKU	622,90 €
	<u>POLIDEPORTIVO</u>	
16905135	LATIGUILLOS DE PARCHEO - POLIDEPORTIVO -	348,49 €
16905136	LAMPARA LED -POLIDEPORTIVO -	108,90 €
16905164	CABLES PARA VIDEOCÁMARA HIKVISION - POLIDEPORTIVO	641,11 €

16905129	UPS - POLIDEPORTIVO	1.823,66 €
16905131	SWITCH HPE PROCURVE - POLIDEPORTIVO -	1.185,13 €
16905132	FIREWALL - POLIDEPORTIVO -	2.152,58 €
16905133	ACCES POINT - FIREWALL - POLIDEPORTIVO	500,72 €
16905134	8 TELEFONOS IP + LICENCIAS - POLIDEPORTIVO -	2.870,07 €
16905161	VIDEOGRABADOR HIKVISION	1.035,69 €
16905162	CÁMARA IP HIKVISION - POLIDEPORTIVO	446,63 €
16905163	CÁMARA IP HIKVISION - POLIDEPORTIVO	446,63 €
16905141	MÁQUINA DE HIELO - SPA POLIDEPORTIVO	4.144,13 €
16905147	MESAS - POLIDEPORTIVO -	1.226,75 €
16905146	SILLAS - POLIDEPORTIVO -	1.055,12 €
16905145	ARMARIOS - POLIDEPORTIVO -	1.837,55 €
16905144	CORTINAS ENROLLABLES - POLIDEPORTIVO	875,56 €
	<u>ALMACÉN MUNICIPAL</u>	
6005143	TALADRO PERCUTOR - ALMACÉN MUNICIPAL	152,52 €
6005142	AMOLADORA	57,30 €
	<u>ERREKABARREN 12 - MONJAS</u>	
17005173	CAMARA SEGURIDAD - CONVENTO MONJAS -	871,36 €
17005174	CÁMARA SEGURIDAD - CONVENTO MONJAS	871,36 €
17005175	CÁMARA SEGURIDAD - CONVENTO MONJAS -	871,36 €
17005176	CÁMARA SEGURIDAD - CONVENTO MONJAS -	871,36 €
17005177	VIDEOGRABADOR - CONVENTO MONJAS -	1.490,51 €
17005178	CÁMARA SEGURIDAD - CONVENTO MONJAS -	642,73 €
	<u>FÚTBOL 7</u>	
17305172	CÁMARA SEGURIDAD - CAMPO DE FÚTBOL 7 -	681,90 €
	<u>IRALABARRI - LOCAL AJEDREZ</u>	
16105157	MESAS Y SILLAS - LOCAL AJEDREZ -	1.335,02 €
	<u>FRONTÓN ITURRIGORRI</u>	
4105170	CÁMARA SEGURIDAD - FRONTÓN ITURRIGORRI -	1.885,35 €
4105171	CÁMARA SEGURIDAD - FRONTON ITURRIGORRI	1.885,35 €
100005158	INSTALACION FAROLA - PASO DE CEBRA IRALABARRI	2.868,08 €
100005159	INSTALACIÓN FAROLA - PASO DE CEBRA APOTZAGA-ETXE	2.427,40 €
100005160	INSTALACIÓN FAROLA - PASO DE CEBRA ERREKABARREN	3.314,45 €
	TOTAL	767.765,64 €

5. 2020KBES0008 espedientea. Kontu-hartzailearen komunikazioa

Juan Antonio Martínez de Aguirre: Komunikazioa martxoaren 26an idatzita dago, ez dut aldatu baina badakizue Fondo Foraletik miloi eta hamalau mila gutxiago datozela. Gero, gaur onartu diren aldaketekin zaborretan gutxi gorabehera hiru mila euro gutxiago jasoko dugu eta uraren kasuan ezin da daturik atera, kontsumoaren araberakoa delako, baina hemen agertzen dira 2019ko likidaziotik ekarritako kopuruak. Diruzaintzaren soberakina hiru miloi hirurehun eta hogeita hamalau mila ingurukoa izan zen. Aurrezte gordin finkatua bi miloi ehun eta hogeita bat mila eurokoa. Aurrezte gordina izaten da sarrera korrienteen kapitulua eta kentzen da gastutik 1. Kapitulua (pertsonala), 2. Kapitulua (ohiko ondasunen eta zerbitzuen erosketa eta 4. Kapitulua (diru-laguntzak). Aurrezki garbiari, berriz, interesak kentzen zaizkio eta amortizazioak (9. Kapitulua). Kasu honetan, Kutxako prestamoaren amortizazioa. Hor geratzen gara 4.267. Hau urtean egiten diren inbertsioekin lotuta dago. Batzuetan inbertsio tipoagatik edo berandu

gabiltzelako luzatu egiten dira eta ez dira gastatzen eta horrexegatik daude alde hauek komunikazioan. 2013tik aurrera nola joan den ipini da. Diru-sarreretan une honetan normaltasunez egin da. Ura eta zaborra lehenengo aldiz apirilean kobratzen da eta astelehenean kobratu ziren. Jendea deika ari da galdetzen zergatik kobratu dugun, noizkoa den hori eta mila gauza. Hurrengo hiru hilabetean zaborretan itzuli egingo da martxoaren 15etik 31ra kuota. Ezin du data horietako zaborrik kobratu.

Alkatea: Ezin diogu kobratu itxita eduki dutenei eta zerbitzua eman ez diegunei.

Juan Antonio Martinez de Aguirre: Hori da, bakarrik horiei. Kopuruak kalkulatu daude eta hurrengo hiru hilabeteko kobratzerakoan kendu egingo zaie. Egoera badakigu nora dihoan eta kontuz ibili behar da.

Karmele: Terrazena zenbat gutxiago da? Esan duzu zaborrena hiru mila gutxiago dela, urarena ezin dela kalkulatu, terrazena bai?

Juan Antonio: Berez, eurek eskatu egin behar dute.

Alkatea: Hori bueltatzen den zatia.

Juan Antonio Martinez de Aguirre: Aurrekontuan zazpi mila euro daude. Ikusi egin behar zenbatek eskatzen duen. Orain arte eskatuta zuten bi tabernetatik bat ordainduta du eta bestea ordaindu gabe. Ordaindu duenak 139 € inguru ordaindu du. Nik uste dut ikusten duenean hau eten egin dela, bueltatzea eskatuko duela eta logikoa izango da bueltatzea. Besteak ez du oraindik ordaindu. Beti arazoak ditugu tasa honekin. Batzuk eskatzen dute eta besteak ez. Iaz onartu zen denei urte osoa kobratzea, ipintzen dutenei. Ipintzen ez dutenei ezer ez. Beti burrukan gabiltza. Batzuk eskatzen dute, besteak ez.

Jon Albizu: Ahaztu zaizu, eta herritarrei azaltzeko inportantea da, kiroldegian ere martxoko kuota osoa kobratu zela, baina martxoaren erdia bakarrik zabalik egon zen eta zaborrarekin bezala kiroldegia hasten denean, kuota erdia kobratuko da.

Juan Antonio Martinez de Aguirre: Hori da. Gero talde batzuk ditugu, guztira hirurehun euro inguru da, dirua bueltatu behar zaienak. Saskibalo taldea eta beste 4 edo bost talde dira. Dekretua onartuta dago eta dekretua jaso ahala ordaindu egingo da. Kiroldegia normal hasten denean deskontua egongo da.

Alkatea: Kiroldegiaren kasuan teoriarik 3. fasean ezin da zabaldu, inork ez daki zer baldintzetan eta hurbiltzen den heinean eta argiago dagoenean aztertuko dugu. Aforoaren arabera zabaldu zenezake eta ez dakit kobratzen hasteak zentsurik duen. %25eko aforoa uzten badizute kobratzen hasiz gero erdiek baja emango dute. Bestalde, ez kobratzeak juridikoki ez dakit zenbateraino posiblea den, baina hurbiltzen doan heinean aztertuko dugu zelan jokatu. Orain, beste hilabete inguru itxita egongo da.

Juan Antonio Martinez de Aguirre: Proporzionalki jokatu behar dugu. Hori tasa bat da. Zerbitzua ez baduzu ematen ezin duzu kobratu. Zabaltzen denaren arabera, bere pisua izango du.

“KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA ARETXABALETAKO UDALBATZARI, 2020.03.26ko KREDITUEN ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN ONARPENARI BURUZKOA.

APLIKAZIOZKOA DEN ARAUDIA.

- Apirilaren 27ko 2/2012 lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa
- 2013ko otsailaren 12an argitaratu eta indarrean sartu zen 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren bitartez aldatu zen.(2014ko azaroaren 20ko GAO) Azken 1372014 Foru arau honetatik, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak bertan behera utzi zituen 1.4, 2.2, 2.5, 4, 6.2 artikulak eta Xedapen Gehigarria bakarra.
- Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2019ko urriaren 29koa, Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Jarraibidea onartzen duena, 2019ko azaroaren 14ko GAOean argitaratua.

EGINDAKO TRAMITEAK

- Udalbatzarrak, 2019-12-19an 2020ko Aurrekontu orokorra onartu zuen eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren oinarritzko araudiarekin bat etorri aurrekontu egonkortasunaren, zor publikoaren edo finantza iraunkortasunaren helburuak betetzen zituen.
- 2020ko otsailak 5ean kreditu aldaketa espediente bat onartu zen, Kredituen aurreiazko inkorporazio bidez, 649.587,92 eurokoa, bere osotasunean Diruzaintzaren Soberakinaren kontura finantzatu zena.
- 2020ko otsailak 19an kreditu aldaketa espediente bat onartu zen, Kredituen aurreiazko inkorporazio bidez, 110.000,00 eurokoa, bere osotasunean Diruzaintzaren Soberakinaren kontura finantzatu zena.
- 2020ko martxoak 26an kreditu aldaketa espediente bat onartu da, kredituen transferentziak bidez, 78.180,27 eurokoa.

Azken espediente hau kontabilizatuta, egiazten da betetzen jarraitzen direla aurrekontuzko egonkortasunaren helburua eta zor publikoaren edo jasangarritasun finantzarioaren helburua baina gastu-erregela ez dela betetzen 85.425,66 eurogatik.

- Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Jarraibidearen 3. Erregela (GAO 2019/11/14) ondorengoa dio "Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2021-2022 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean eta hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatua aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari, betiere komunikazio horretan jasotako analisiak ondorioztatzen badu entitatearen finantza iraunkortasuna" (Kontu-hartzailetzaren txostena gora-behera hori jasoz eta erakundearen finantza iraunkortasuna aztertuz eta ebaluatuz).

" Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da".

2019ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako diruzaintza likidoaren soberakina 3.334.082,49 eurokoa izan da 2018an 3.060.462,39 eurokoa zenean, eta 2017an 2.019.559,53 eurokoa zen, kobrantza zalantzagarriko saldoak eta atxikitako finantzaketa-soberakinak deskontatu ondoren.

2019ko aurrekontuaren likidazioa egin ondoren Aurrezte Gordin finkatua 2.121.018,83 eurokoa da 2018an 2.771.519,52 eurokoa zenean eta 2017an 2.182.685,76 eurokoa zenean.

2019ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako aurrezki garbia, maila bateratuan, 1.267.724,52 da; 2018an 1.908.942,51 eurokoa zen, eta 2017an 1.318.620,20 eurokoa. 2016ko aurrekontuan 1.675.264,89 eurokoa izan zen, 2015eko ekitaldian 1.168.093,50 eurokoa, 2014an 1.516.886,43 eurokoa eta 2013an 1.285.815,32 eurokoa.

Oraingo ekitaldian, diru-sarrerak normaltasunez garatzen ari dira oraingoz, eta egindako aurreikuspenen arabera. Dena den, kontuan hartu beharko da diru-bilketan izan daitekeen murrizketa koronabirusaren epidemiaren ondorioz.

Beraz, ulertzen dut erakundearen finantza-iraunkortasuna une honetan ziurtatuta dagoela baina oso adi egon beharko dela diru-bilketaren garapenarekin.

6. Galdere-eskariak

Ion Albizu: Proposamen bat egin behar genuen streaming botaz gero, baina ez denez egin, hurrengorako balioko du. Bereziki egoera honetan herritarrek galdera pila bat dituzte eta buelta bat eman behar zaio herritarrek aukera izatea txanda honetan galdera egin ahal izatea plenoari. Bereziki teknikoki zaila da aurrez galdera egin ahal izatea plenoari. Gu saiatzen gara erantzuten orain Juan Antoniok egin duen

moduan, alkateak edo nik, baina seguruenez herritarrek beste galdera batzuk eduki ditzakete. Planteatzen dugu hurrengo plenoetan horrela egiten badugu eta streaming bidez, ba herritarrek galdera egin ahal izatea.

Alkatea: Apuntatuko dut nola egin daitekeen.

Ion Albizu: Gure plenoetara normalean ez da inor etortzen, modu bat da plenoak herritarrengana hurbiltzeko, nahiz eta plenoko zati batzuk apur bat gogorak izan, bereziki Juan Antoniok ekartzen dizkigunak, baina uste dut gauza interesanteak ere badaudela eta herritarren interesekoak. Galdera txanda funtzionatzen badu, plenoko interesanteena izan daiteke.

Alkatea: Baliteke. Hemendik aurrera, gainera, interesanteak izango dira. Ez dakit nola egingo diren, baino aurreikusten dut bi hilabeteen behin baino sarriago bildu beharko dugula erabakiak hartzeko.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko ak direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA

